
IV. ERANSKINA:

EAEKO 2030ERAKO BIODIBERTSITATE ESTRATEGIAREN GLOSARIOA

2016ko maiatza

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE
Y POLÍTICA TERRITORIAL

- **Moldaera:** Gaur egungo edo esperotako klimara eta haren ondorioetara egokitzeko prozesua. Giza sistemetan, moldaerak kaltea moderatzea edo aldaketa horietatik eratorritako aukera onuragarriak ustiatzea du xede. Sistema naturaletan, gizakiaren esku-hartzeak esperotako klimara eta haren ondorioetara moldatzea erraz dezake¹.
- **Zuhaitz berezia:** Zuhaitz apartekoak dira ezaugarri ezohikoak edo nabarmenak dituztenak (tamaina, adina, historia, edertasuna, kokalekua, eta abar) eta horrexegatik babes berezia merezi dutenak².
- **Natura-intereseko guneak:** aintzat hartu beharreko eremuak lurralde-, arlo eta herri-planeamenduak, horien ekologia-, kultura eta ekonomia-balioei eusteko. Kasu batzuetan, gune horiek beste babes-figura batzuetan sartu dira (erabat edo partzialki). 4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, EAEko lurraldearen antolamenduari buruzkoak, lurraldea antolatzeke tresnak zehazten ditu. Horien artean, Lurraldearen Antolamendurako Gidalerroek (LAG) erreferentziako marko orokorra osatzen dute eta sortzen dituzten gainerako agiriak horietara egokitu beharko dira. Lege horrek adierazten du LAGek hau bildu behar dutela: «*Eremuen mugak eta definizioa zehaztu behar dituzte, besteak beste. Horren helburua da balio ekologikoak, kulturalak edo ekonomikoak zaintzea eta, hala badagokio, eremuen baliabide naturalak arrazoiz ustiatzea, kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen lege zehatzei jarraituz.*»³.
- **Artifizializazioa:** etxebizitzak, azpiegiturak eta ekipamenduak sor daitezkeen, lurzorua kontsumo- edo okupazio-ekintza izendatzeko EAEko terminoa. Artifizializazioaren kontzeptuaren baitan, lurzorua iragazgaitzeko ekintzak deskribatzen dira; beraz, oro har, artifizializazioa «lurzoru-zigilatze» kontzeptu teknikoaren antzekoa da. EAEn dauden lurzoru-artifizializazio inpaktu nagusiak hauek dira: a) lurraldearen zatikatzea eta biodibertsitatearen galera; b) lur emankorren itzulezinezko galera, zeren EAEko topografia menditsuaren eta kokapenen ondorioz, gehien erabiltzen direnak haranen behealdean baitaude; c) klima-inpaktua (artifizializatutako guneetako tenperatura artifizializatu gabekoen aldean pixka bat igotzea); d) arroak eta ur-, itsaso- eta lur-jabego publikoak okupatzea, ondorioz, ibai-ibilguen uraldien emaria areagotzen da, baita uholdeen arriskua eta horiek ondorio katastrofikoak sortzeko probabilitatea ere eta e) sistema hidrikoan hainbat kalte sortzea (gainazaleko/lurpeko ur-fluxuei oztopoak jartzea, etab.)⁴.
- **Biodibertsitatea:** lurreko, itsasoko eta beste ekosistema batzuetako organismo biziaren aldakortasuna. Biodibertsitateak barnean hartzen du aldakortasuna maila genetikoan, espezieen mailan eta ekosistemen mailan.
- **Biotopo babestua:** oro har, tamaina txikiko guneak dira eta biotopo babestuak sortzearen helburua hauxe da: ekosistemak, komunitateak, elementu biologikoak, interes geologikoko eremuak nahiz natur inguruneetako toki zehatzak, edo berezitasun nabarmena, arrarotasun, edertasun ikusgarri edo ageriko interes zientifikoa duten eraketak babestea. Arraroak, ahulak, garrantzitsuak edo bereziak direlako, balio berezia ematen zaie. 16/94 Legearen arabera, biotopo babestuak dira oinarritzko legedian

¹ Klima-aldaketaren aurkako 2050erako euskal estrategiaren glosarioa.

² <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoDesignacion.do?pkDesignacion=9&u95aMigasPan=L,5,1;> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

³ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoDesignacion.do?pkDesignacion=9&u95aMigasPan=L,5,1;> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

⁴ http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-orokorra/eu/contenidos/informacion/suelo/eu_1044/artificializacion.html (azken ikustaldia: 2016-05-10).

erreserba natural, monumentu natural edo paisaia babestua izendapena duten naturaguneak⁵.

- **Naturagune babestu nabarmenen katalogo irekia:** Euskal Autonomia Erkidegoko ekosistema desberdinen lagin adierazgarria; kontserbazio-egoera onena dutenak hautatzen dira katalogo onetarako. Oro har, ezaugarri abiotikoen eta biotikoen bateratzeak (geologia, geomorfologia, fauna, flora, paisaia, etab.) natura-balio eta edertasun berezia eratzen duten guneak⁶ hautatzen dira.
- **Espezie Mehatxatuen EAeko Katalogoa:** Fauna eta florako espezie mehatxatuen EAeko katalogoa erregistro publiko bat da, EAeko natura kontserbatzeko 16/94 Legeak sortua, eta izaera administratiboa du. Zerrendan espezie, azpiespezie edota fauna edo flora populazio bat sartzean, kategoria batean sailkatu behar da, hura babesteko neurriak hartu, hura bereziki kudeatzeko plan bat idatzi eta debeku generikoak ezarri behar dira⁷.
- **Lur-zaintzailletza:** natura-ondarea kontserbatzeko tresna bat da; hala, biodibertsitatea kontserbatzeko alorrean administrazio publikoen partaidetza sustatzen du, beste agente batzuen (jabeak, gizarte zibil antolatua, herritarrak edo enpresa pribatuak) sustatzeaz gain. Lurralde-zaintzak borondatezko akordio baten forma hartzen du, zaintza-erakundeen eta lurren jabe edo erabiltzaileen artekoa, edota zaintza-erakundeen eta baliabide naturalen aprobetxamendu- edo erabilera-eskubideen titularren artekoa. Honako hauek ezarri behar dira: indarrean izango den aldia; natura-ondarea aktiboki kontserbatzeko egingo diren jarduerak; jarraipen- eta aholku-mekanismoak; eta laguntza tekniko eta finantzarioa. Zaintzailletza-akordio baten xede diren finkak jabetza pribatukoak izan daitezke, edo udalen herri-lurrak, enpresen jabetzakoak, edota izan daitezke ere baliabide naturalen aprobetxamenduaren gaineko eskubideak dituzten lurrak, haien titulartasuna gorabehera⁸.
- **Lurralde Antolamendurako Gidalerroak (LAG):** lurraldearen antolamendurako tresna, EAeko lurralde-antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legetik eratorria. Lurralde Antolamendurako Gidalerroek hiru funtzio dituzte: a) jarduera ekonomikoak eta sozialak lurraldean kokatzeko prozesuak orientatu eta arautuko dituzten irizpideak zein arauak ezartzea, interes orokorreko lurralde-oreka bermatzeko, eta lurraldeko gune egokietara jarduera ekonomikoa erakartzeko baldintzak egokia sortzea; b) Administrazio Publiko guztien politika sektorialetarako erreferentzia-esparru bat eraikitzea, guneak eta lurrak antolatzeko eta erabiltzeko, baita hirigintza-jarduerarako ere, Administrazio guztiak era egokian koordinatzen eta bateratzen direla bermatzeko eta c) Estatuak eta beste autonomia-erkidego batzuek batera jardutea eskatzen duten lurralde-ekintzak aurreikustea⁹.
- **Hegaztien Zuzentaraua:** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren

⁵ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/eu/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoDesignacion.do?pkDesignacion=8&u95aMigasPan=L,5,1;> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

⁶ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoProteccion.do?pkMarco=9&tipoEntidad=0&bloqueMarco=300;> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

⁷ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/u95aWar/consultainstrumentosProteccionJSP/U95aSubmitInstrumentosProteccion.do?pkInstrumentosProteccion=4;> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

⁸ [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/contenidos/informacion/custodia_territorio/eu_bio/indice.html;](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/eu/contenidos/informacion/custodia_territorio/eu_bio/indice.html) (azken ikustaldia: 2016-05-10).

⁹ [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/rev_dot_doc_base/eu_def/adjuntos/Oinarritzko%20Dokumentua%20web.pdf;](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/rev_dot_doc_base/eu_def/adjuntos/Oinarritzko%20Dokumentua%20web.pdf) (azken ikustaldia: 2016-05-10).

30eko basahagaztiak kontserbatzeari buruzko 2009/147/EE Zuzentarauaren helburua Europar Batasuneko basahagazti guztiak kontserbatzea da, horiek babesteko, kudeatzeko eta kontrolatzeko arauak ezarrita. Hegaztiak, haien arrautzak, habiak eta habitatak sartzen dira. Espezie mehatxatuen populazioak kontserbatzeko edo leheneratzeko neurriak hartzea proposatzen du, eskakizun ekologiko, zientifiko eta kulturalen arabera, kontuan izanik behar ekonomikoak eta jolaserako beharrak. Hegazti-espezie guztientzat behar beste dibertsitate eta azalera kontserbatzeko eta leheneratzeko, neurriak ezarri behar dira¹⁰.

- **Habitaten Zuzentaraua:** 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauak (habitat naturalak eta basafaunak eta basafloak kontserbatzeari buruzkoa) basaespezieak eta haien habitatak babestea du helburu. Basaespezieak babesteko sare ekologiko bat eta araubide juridiko bat ezartzen ditu. Batasunaren intereseko habitatak identifikatzen ditu, baita Batasunaren intereseko animalia- eta landare-espezieak ere. Horiek guztiak babesteko betebeharra ezartzen du, eta, berebat, horiek guztiak mantentzeko, leheneratzeko eta kontserbazio-egoera on bat sustatzeko neurriak hartzera behartzen du¹¹.
- **Ekosistema:** unitate funtzionala, organismo biziak, horien inguruneak eta horien artean gertatzen diren interakzioek osatzen dutena. Ekosistema jakin bateko osagaiak eta horien espazio-mugak ekosistemaren xedearen mendekoak dira: kasu batzuetan, indartsu samarrak dira; beste batzuetan, berriz, difusoak. Ekosistemen mugak aldatu egin daitezke denboran zehar.
- **Funtsezko elementuak:** EAEko biodibertsitatea kontserbatzeko interesekoak diren habitat naturalak eta espezie basatiak. Horiek mantentzeko, edo kontserbazio-egoera ona lor dezaten, neurriak ezartzen dira.
- **Naturagune babestuak (NB):** naturaguneen sarea osatzen dute, baldin eta apirilaren 15eko 1/2014 Legean (EAEko natura kontserbatzeko legearen testu bategina onartzen duena) zehazten diren helburu eta baldintzetako baten bat betetzen badute, lege horretan zehazten diren babes-estatutu baten mende dauden lekuek. Leku horiek sail hauetako batean egon daitezke: parke naturala, biotopo babestua, zuhaitz berezia edo Natura 2000 Europako Sarean dagoen zona edo gunea (Batasunaren garrantzizko lekuak –BGL–, kontserbazio bereziko eremuak –KBE– eta hegaztientzako babes bereziko eremuak –HBBE–); horrek ez du eragozten ezin dutenik espazioalki kointziditu aurreko kategoriek¹².
- **Espezie mehatxatua:** etorkizunean desagertu daitezkeen espezieak, baldin eta bere biziraupena arriskuan jartzen duten baldintzek jarraitzen badute.
- **Batasunaren intereseko espezieak:** Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE habitat-zuzentarauak (habitat naturalak eta basafaunak eta basafloak kontserbatzeari buruzkoa) honela definitzen ditu: i) arriskuan dauden espezieak, salbu eta lurralde horretan era marjinalan hedatzen den banaketa naturala badu eta ez badaude mehatxatuta eta ez badira kalteberak mendebaldeko gune paleartikoan; ii) kalteberak izatea, hau da, etorkizun hurbil batean gerta daitezke arriskuan dauden espezieen kategorian izatea, mehatxua sortzen duten faktoreek jarraitzen badute; iii) arraroak izatea, hau da, beren populazioak tamaina txikikoak izatea eta gaur egun arriskuan ez

¹⁰ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=URISERV%3Aev0024> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

¹¹ <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CONSLEG:1992L0043:20070101:ES:PDF>; (azken ikustaldia: 2016-05-10).

¹² <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2014002158>; (azken ikustaldia: 2016-05-10).

badaude ere eta kalteberak ez badira ere, egon daitezke edo izan daitezke. Espezie horiek gune geografiko mugatuetan daude edo azalera handiago batean barreiatuta daude; edo iv) endemikoak izatea eta arreta berezia behar izatea beren habitataren berezitasunarengatik eta/edo beren ustiapenak beren kontserbazioan izan ditzakeen balizko ondorioengatik. Espezie horiek Zuzentarauaren II. edota IV edo V. eranskinetan ageri dira edo ager daitezke¹³.

- **Espezie exotiko inbaditzaileak:** animalien, landareen, onddoen edo mikroorganismoen espezie, azpiespezie edo behe mailako taxon baten edozein izaki biziri dagokion barreiatze gune naturaletik kanpo txertatzen direnean; aintzat hartzen dira, halaber, espezie horien edozein zati, gameto, hazi, arrautza edo propagulu, baita biziraun dezakeen eta ondoren ugaltzeko daitezkeen edozein hibrido, barietate edo arraza ere, betiere horiek guztiak txertatzeak edo hedatzeak biodibertsitatea edo ekosistemei lotutako zerbitzuak mehatxatzen dituztela edo horietan ondorio txarrak sortzen dituztela frogatzen bada¹⁴.
- **Lehentasunezko espezieak:** Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE habitat-zuzentaraua (habitat naturalen eta basafaunen eta basafloren kontserbazioari buruzkoa), salbu eta espezieen barreiatze gune naturala lurralde horretan era marjinalen hedatzen bada eta ez badaude mehatxatuta eta ez badira kalteberak mendebaldeko gune paleartikoan. Espezie horiek kontserbatzea ardura berezia da Europar Batasunarentzat, aintzat hartzen den lurraldean espeziearen barreiatze gune naturalaren proportzioa garrantzitsua dela kontuan izanik. Lehenetsitako espezie horiek izar batekin (*) daude adierazita Zuzentarauaren II. eranskinean¹⁵.
- **Habitat baten kontserbazio egoera:** habitatarengan eta bertan bizi diren ohiko espezieengan eragiten duten eta epe luzean beren barreiatze naturalari, egiturari eta funtzioei, zein beren biziraupenari eragin diezaieketen eragileen multzoa da¹⁶.
- **Espezie baten kontserbazio egoera:** espeziearengan dauden eragileak eta epe luzera bere populazioen banaketan eta garrantzian zerikusia duten eragileen multzoa dela kontsideratzen da¹⁷.
- **Geodibertsitatea:** ezaugarri geologikoen aldaera, aniztasuna, maiztasuna edo banaketa adierazten du. Natura-ondareari eta biodibertsitateari buruzko 42/2007 legeak lehenengo aldiz definitu zuen geodibertsitatea edo dibertsitate geologikoen kontzeptua: Lurraren eboluzioaren ondorio eta lekuko diren elementu geologikoen – arroak, mineralak, fosilak, erliebe-formak, formazio eta unitate geologikoak eta paisaiak barnean hartuta– aniztasuna¹⁸.
- **Batasunaren Intereseko Habitatak (BIH):** 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE habitat-zuzentarauak (habitat naturalen eta basafaunen eta basafloren kontserbazioari buruzkoa) honela definitzen ditu: i) beren barreiatze gune naturalean desagertzeko arriskuan dauden habitatak; ii) barreiatze gune natural murriztua duten habitatak, erregresioagatik edo beren gunea murriztua dagoelako berez; iii) edo zehaztutako

¹³ <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CONSLEG:1992L0043:20070101:ES:PDF>; (azken ikustaldia: 2016-05-10).

¹⁴ <http://www.boe.es/doue/2014/317/L00035-00055.pdf> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

¹⁵ <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CONSLEG:1992L0043:20070101:ES:PDF>; (azken ikustaldia: 2016-05-10).

¹⁶ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32009L0147&from=ES> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

¹⁷ <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32009L0147&from=ES> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

¹⁸ EAEko 2020rako Geodibertsitate Estrategia.

bederatzi eskualde biogeografikoetako (alpinoa, atlantikoa, boreala, kontinental, estepikoa, makaronesia, Itsaso Beltza, mediterraniarra eta panonikoa) baten edo gehiagoren berezko ezaugarrien adierazleak dira. Habitat mota horiek I. eranskinean ageri dira edo ager daitezke. Habitat-zuzentzarauak hierarkikoki sailkatzen ditu Batasunaren intereseko habitat naturalak, zifra bakarreko kode baten bidez deskribatutako 9 mailatan. Maila horietako bakoitza hainbat ataletan banatzen da, bi zifrako kode baten bidez deskribatuak, eta Batasunaren intereseko habitat bat hartzen dute beren baitan; hala habitat hori kontserbatzeko kontserbaziorako gune berezi gisa izendatu behar da eta, horrela, Natura 2000 Sarea osatzen dute. Habitat hori lau zifratako edo letretako kode baten bidez deskribatzen da. Izartxo (*) bat agertzen bada, habitat hori lehentasunezkoztat jotzen dela esan nahi du¹⁹.

- **Lehentasunezko habitat (naturalak):** Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko habitat naturalen eta basafaunen eta basafloren kontserbazioari buruzko 92/43/EEE habitat-zuzentzarauak honela definitzen ditu: lurraldean desagertzeko arriskuan dauden habitat motak dira, eta horiek kontserbatzea ardura berezia da Europar Batasunarentzat, aintzat hartzen den lurraldean horien barreiatze gune naturalaren proportzioak duen garrantzia kontuan izanik. Mota horiek izartxo batekin (*) daude adierazita Zuzentzarauaren I. eranskinean²⁰.
- **Ramsar nazioarteko garrantzia duten hezeguneak:** Ramsar Hitzarmenaren zerrendan dagoen hezegune babestua, ikuspuntu ekologiko, botaniko, zoologiko, limnologiko edo hidrologikotik duen garrantziagatik, eta berebiziko garrantzia izateagatik ur-hegaztientzat²¹.
- **Azpiegitura berdea:** eremu naturalen eta erdinaturalen eta beste ingurumen-elementuren sarea, estrategikoki planifikatua, eta hainbat ekosistema-zerbitzu emateko diseinatua eta kudeatua izan dena. Eremu berdeak gehitzen ditu (edo urdinak ur-ekosistemen kasuan), baita lurreko eta itsasoko (kostaldeko guneak barne) eremuetako beste elementu fisiko batzuk ere. Lurreko eremuetan azpiegitura berdea landagune eta hirigune guztietan dago²².
- **Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL):** lekuotan, horietako eskualde biogeografikoan edo biogeografikoetan dauden habitat naturalak (92/43/EEE Zuzentzarauaren I. eranskinean aipatzen diren motakoak) edo espezie jakin bat (92/43/EEE Zuzentzarauaren II. eranskinean aipatzen direnak) mantentzen eta leheneratzen laguntzen da, ongi zainduta. Horrela, Natura 2000 Sarearen koherentziari ekarpen nabarmenak egingo zaizkio, edota dagokion eskualde biogeografikoaren edo biogeografikoen dibertsitate biologikoari eusten lagunduko zaio. Leku horiek guztiak Europako Batzordeak izendatuko ditu 92/43/EEE Zuzentzarauaren 4. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Leku zabalak hartzen dituzten animalia espezieen kasuan, Batasunaren garrantzizko lekuak izango dira espezie horien banaketa naturalaren barruan, euren biziraupen eta ugalketarako oinarritzko elementu fisiko eta biologikoak dituzten kokaleku jakinak²³.

¹⁹ <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CONSLEG:1992L0043:20070101:ES:PDF>; (azken ikustaldia: 2016-05-10).

²⁰ <http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=CONSLEG:1992L0043:20070101:ES:PDF>; (azken ikustaldia: 2016-05-10).

²¹ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95/es/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoProteccion.do?pkMarco=3&tipoEntidad=0&bloqueMarco=300> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

²² <http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/?uri=celex%3A52013DC0249> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

²³ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/eu/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoDesignacion.do?pkDesignacion=1&u95aMigasPan=L,5,1;E,N,0,1,0,300>; (azken ikustaldia: 2016-05-10).

- **Interes Geologikoko Lekuak (IGL):** eskualde natural baten historia geologikoaren baitan, garrantzizkotzat jotzen diren ezaugarri bat edo gehiago adierazten dituzten guneak dira²⁴.
- **Nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak:** nekazaritza-jarduerak sortzen dituen edo sor ditzakeen ingurumen-arazoak konpontzen laguntzen duten neurriak²⁵.
- **Arintzea:** mehatxu fisikoen aurka egon daitezkeen eraginak murriztea (gizakiek induzitutakoak barne) arriskua, eraginpean egotea eta kalteberatasuna murrizten duten ekintzen bidez²⁶.
- **Parke naturala:** gizakiaren ustiapenak edo okupazioak eraldatu ez duen gunea, bertako paisaiengatik, bertako ekosistemen adierazgarritasunagatik edo bertako flora, fauna edo formazio geomorfologikoengatik identifika daitekeena. Botere publikoek lehentasunezko eran jardun behar dute, bateragarriak izan daitezen bertako baliabide naturalen probetxu antolatua zein erabilera publikoa, eta parkearen kontserbazioa edo bertako balio ekologiko, estetiko edo hezigarriak²⁷.
- **Baso Egiatzapeneko Sistemak antzemateko Programa (PEFC):** gobernuz kanpoko erakunde independentea da, ez du irabazi-asmorik eta mundu-mailakoa da. Basoen kudeaketa jasangarria sustatzen du, basoek gizarte-, ekonomia- eta ingurumen-oreka lor dezaten²⁸.
- **Natura 2000 Sarea:** balio ekologiko handiko naturaguneen Europako sare bat da, eta izendapena jasotzen dute, egoera on batean, habitat eta espezie mota zehatz batzuk beren barreiatze gune naturaletan babesten direla bermatzeko, horiek guztiak babesteko eta kontserbatzeko gune berezien bidez (BGL, KBE, BBE). Sarea, 1992ko maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauaren (habitat naturalen eta basafloren eta basafaunen kontserbazioari buruzkoa) I. eranskineko zerrendan ageri diren habitat natural motak dituzten tokiez osatuta dago, baita II. eranskineko fauna eta flora espezieez ere. Natura 2000 Sarean sartzen dira, halaber, hegaztientzako babes bereziko eremuak (BBE); horiek 2009ko azaroaren 30eko 2009/147/EE Zuzentzuan (basahegaztien kontserbazioari buruzkoa) jasotzen dira²⁹.
- **Biosferaren erreserba:** lehorreko edo kostaldeko/itsasoko ekosistema eremuak edo haien arteko konbinazioak dira, UNESCOren MaB Programaren baitan nazioarteko aitortpena jaso dutenak. MaB programako biosfera-erreserbak kontserbaziorako intereseko lekuak dira natura- eta kultura-balio handia dutelako; baina, aldi berean, lurralde habitatuak dira eta garapen-funtzioak berebiziko garrantzia baitu. Horregatik, biosfera-erreserbek hiru oinarrizko funtzio hauek bete behar dituzte: i) dibertsitate biologikoa eta ekosistemen egoera ona mantentzea; ii) tokiko populazioaren bizi-baldintzak hobetzea, baliabide naturalak erabiltzeko moduak eta erreserbaren kontserbazioa bateragarri bihurtuz; iii) ingurumenari buruzko ikerketa, hezkuntza eta prestakuntza sustatzea, nazioarteko sareko erreserben arteko informazio-trukearen

²⁴ EAEko 2020rako Geodibertsitate Estrategia.

²⁵ Euskadiko Landa Garapen Programa, 2015-2020.

²⁶ Klima-aldaketaren aurkako 2050erako euskal estrategiaren glosarioa.

²⁷ [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/eu/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoDesignacion.do?pkDesignacion=7&u95aMigasPan=L,5,1;)

[u95a/eu/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoDesignacion.do?pkDesignacion=7&u95aMigasPan=L,5,1;](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/eu/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoDesignacion.do?pkDesignacion=7&u95aMigasPan=L,5,1;) (azken ikustaldia: 2016-05-10).

²⁸ Euskadiko Landa Garapen Programa, 2015-2020.

²⁹ [http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/es/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoProteccion.do?pkMarco=1&tipoEntidad=0&bloqueMarco=300&u95aMigasPan=L,5,1;)

[u95a/es/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoProteccion.do?pkMarco=1&tipoEntidad=0&bloqueMarco=300&u95aMigasPan=L,5,1;](http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/es/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoProteccion.do?pkMarco=1&tipoEntidad=0&bloqueMarco=300&u95aMigasPan=L,5,1;)

bidez³⁰.

- **Erresilientzia:** sistema sozio-ekologiko batek gertaera edo nahaste arriskutsu bati aurre egiteko, erantzuteko edo berrantolatze gaitasuna, haren funtsezko funtzioari, nortasunari eta egiturari eutsiz, eta, aldi berean, moldatzeko, ikasteko eta eraldatzeko gaitasunari eutsiz³¹.
- **Ekosistemen zerbitzuak:** ekosistemek gizakiaren ongizateari eta haren jardueri egiten dien zuzeneko edo zeharkako ekarpenak dira. Ekarpen horiek baliabideak edo prozesuak izan daitezke, eta hiru taldetan bana daitezkeen onurak ematen dituzte: ekologikoak, sozio-kulturalak eta ekonomikoak. Zerbitzu ekosistemikoak honela banatzen dira: i) *hornidura-zerbitzuak*, gizarteak zuzenean edo zeharka aprobetxatzen duen baliabide edo material bat sortzen duten zerbitzuak dira. Baliabide horiek biotikoak edo abiotikoak izan daitezke; ii) *erregulazio-zerbitzuak*, bizitza eta jarduera ekonomikoak garatzeko garrantzitsuak diren prozesu ekologikoetan esku hartu edo horiek erregulatzen dituzten zerbitzuak dira; iii) *kultura-zerbitzuak*, gizakiaren balioei eta portaerari hertsiki lotuta dauden zerbitzuak dira, baita gizakiaren eredu sozial, ekonomiko eta politikoei ere. Beraz, erabat materialak ez diren ekosistemen ezaugarriak eta pertsonen jolas-erabilera ere aipatzen dira; eta iv) *habitat-, oinarri- edo babes-zerbitzuak*, ekosistemek espezieek beren bizi-zikloak gara ditzaten eta biodibertsitatea kontserba dadin eskaini ditzaketen lekuak eta baldintza onak sartzen dira.
- **Jasangarritasuna:** sistema naturalek eta giza sistemek modu parekidean irautea bermatzen duen prozesu dinamikoa³².
- **Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak (BBE):** 2009ko azaroaren 30eko basahegaztiei buruzko 2009/147/EE Zuzentarauko I. eranskinean jasotzen diren hegazti-espezieak babestu, administratu eta erregulatzen direla bermatzeko izendatzen diren lekuak dira; beste horrenbeste egiten da erregularki iristen diren eta I. eranskinean jaso gabe dauden espezie migratzaileekin³³.
- **Kontserbazio Bereziko Eremuak (KBE):** Eusko Jaurlearitzako Kontseiluak izendatutako Batasunaren garrantzizko lekuak dira. Horietan, habitat naturalak edota bertan bizi diren espezie-populazioak kontserbazio egoera onean mantentzeko edo egoera horretara leheneratzeko behar diren zaintzako neurriak aplikatzen dira. 1992ko maiatzaren 21eko Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentzarauaren (habitat naturalen eta basafaunen eta basafloren kontserbazioari buruzkoa) 6. artikulua arabera, kontserbazio-neurriek hauek guztiak ekarriko dituzte: «*kudeaketa-plan egokiak, tokian tokirako espezifikokoak edo beste garapen-plan batzuetan integratuak, baita egokiak diren arauzko, administrazioko edo kontratuzko neurriak ere*», eta horiek guztiek babestu nahi diren habitat natural eta espezie moten eskakizun ekologikoak bete beharko dituzte. Autonomia-erkidegoek izendatzen dituzte KBE horiek eta, halaber, leku horietako kontserbazio-neurriak ezartzen dituzte³⁴.

³⁰ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/es/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoProteccion.do?pkMarco=7&tipoEntidad=0&bloqueMarco=300&u95aMigasPan=L,5,2;>

³¹ Klima-aldaketaren aurkako 2050erako euskal estrategiaren glosarioa.

³² Klima-aldaketaren aurkako 2050erako euskal estrategiaren glosarioa.

³³ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/es/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoDesignacion.do?pkDesignacion=2&u95aMigasPan=L,5,1;E N,0,1,0,300;> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

³⁴ <http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.eus/r49-u95a/es/u95aWar/consultaMarcosJSP/U95aSubmitMarcoDesignacion.do?pkDesignacion=1&u95aMigasPan=L,5,1;E N,0,1,0,300;> (azken ikustaldia: 2016-05-10).

